

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BERNEDOKO UDALA

Hiri eta landa ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren 2026ko kobrantzak

Zerga hauek 2026ko urriaren 1etik abenduaren 1era bitartean ordaindu ahal izango direla jakinarazten da:

- Hiri Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.
- Landa Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.
- Ezaugarri berezietako Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.

1. ORDAINTZEKO EPEA:

A. Borondatezko epea: 2026ko urriaren 1etik abenduaren 1era.

B. Betearazte aldia: 2026ko abenduaren 2tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekaruak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

2. ORDAINTZEKO TOKIA ETA MODUA:

A. Bankuetan helbideratutako ordainketak: ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B. Helbideratu gabeko ordainketak: ordainketa bankuan helbideratuta ez dutenek borondatezko epean soilik ordaindu ahal izango dute banku-transferentzia bidez.

3. GOMENDIOAK:

Banku helbideratzeen altak edo aldaketak, eta helbide aldaketak aurrerantzean jakinarazpenak egiteko, Bernedoko Udalean izapidetu beharko dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Bernedon, 2026ko irailaren 2an

Alkateordea

RUBÉN MARTÍNEZ CRESPO